



Erabiltzailearen gidaliburua: espedienteak aldatzea (hornitzaileak)

Aurkibidea

1. Helburua.....	3
2. Hasierako menuak	3
2.1 Nire eskabideak	4
2.2 Nire datuak.....	5
2.3 Espedienteak aldatzeko eskaera sortzea	5
2.4 Nabigazio menua	5
3. Espedienteak aldatzeko eskaera baten bizi-zikloa hornitzailearen ikuspuntutik	7
3.1 Espedienteak aldatzeko eskaera bat sortzea	7
3.1.1 Eskaera berria	7
3.1.2 Formularioa	7
3.1.3 Nabigazioa	11
3.1.4 Erantsi dokumentazioa.....	12
3.2 Erosketa-saileko langileen lehenengo ebaluazioa	16
3.3 Batzorde teknikoaren ebaluazioa	16
3.4 Informatika-saileko langileen ebaluazioa.....	17
3.5 Txostena idazteke.....	17
3.6 Txostena sinatzeke	17

1. Helburua

Dokumentu honetan, aplikazioaren atalei buruzko azalpena eta prozedura berri baterako espedienteak aldatzeko eskaera baten bizi-zikloaren gida xehatua eskaintzen da, hornitzailearen ikuspuntutik begiratuta. Aplikazioaren erabilera errazteko, edukia bi zatitan egituratu da: **hasierako menuak** eta **bizi-zikloa**.

2. Hasierako menuak

Aplikazioan sartuta, hornitzaileak pantaila hau ikusiko du:

Espedienteak aldatzeko gidaliburua

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

- Nire eskabideak:** Atal honetan, sortu dituzun espedienteak aldatzeko eskaerak ikusi ahal izango dituzu, baita beren egoera begiratu ere.
- Nire datuak:** Zure erabiltzaileari buruzko informazioa begira dezakezu hemen.
- Espedienteak aldatzeko eskaera berri bat sortu nahi duzu?:** Atal honetan, espedienteak aldatzeko eskaera berriak sortu ahal izango dituzu.
- Nabigazio-menua:** Menu hau aplikazioan nabigatzeko erabil dezakezu.

The screenshot shows the application interface with three main sections highlighted by red boxes and numbered 1, 2, and 3. Section 1 is a table of cases, section 2 is the user profile, and section 3 is a button to create a new case.

ID	Espedientea	Espediente zk.	Arazola	Mota	Data	Egoera	Nork sortua
SME-2025-00913					19-12-2025	BERRIA	
SME-2025-00912	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Beste bat	19-12-2025	BERRIA	
SME-2025-00291	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Taupada-markagailua	16-12-2025	BERRIA	
SME-2025-00190	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Taupada-markagailua	04-11-2025	BERRIA	
SME-2025-00188	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Taupada-markagailua	03-11-2025	BERRIA	

2.1 Nire eskabideak

Aplikazioaren atal honetan, espedienteak aldatzeko eskaerak agertuko dira, hain zuzen, zuk sortutako eskaerak, baita haiei buruzko informazio orokorra ere.

Eskaeraren ID kodean klik eginez gero, atazara joango zara, bere edukia ikus-teko.

Nire eskabideak

KASU IRERIAK EBATZITAKO KASUAK

ID	Espedientea	Espediente zk.	Arazola	Mota	Data	Egoera	Nork sortua
SME-2025-00913					19-12-2025	BERRIA	
SME-2025-00912	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Beste bat	19-12-2025	BERRIA	
SME-2025-00190	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Taupada-markagailua	04-11-2025	LAGUNAK ERREGISTRATZE	
SME-2025-00188	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea	Taupada-markagailua	03-11-2025	BERRIA	

2.2 Nire datuak

Atal honetan, saioa irekitzeko erabili den erabiltzailearen datuak agertzen dira.



Nire Datuak

Izen-abizenak
██████████


NAN
██████████

Profila
Erosketa-Langileak

Azken sarbidea
2025/12/19 14:35

2.3 Espedienteak aldatzeko eskaera sortzea

Atal honen bidez, espedienteak aldatzeko eskaera berriak sor ditzakezu; horretarako, «Eskaera berria» botoian klik egin beharko duzu.



Espedienteak aldatzeko eskaera berri bat sortu nahi duzu?

Eskaera berria

2.4 Nabigazio menua


Menu hau aplikazioaren pantaila guztietan ezkerretan egongo da beti, eta kurtsorea gainetik igerotzen denean zabalduko da. Menu horretatik, hau egin dezakezu:

- Edozein leihotatik menu nagusira itzuli.
- Espedienteak aldatzeko eskaera ikusi berriak edo markatutakoak ireki.

Etxearen ikonoa hautatzean, aplikazioaren hasierara itzuli ahal izango zara, edonon zaudela ere.

«**Berriak**» sakatuz gero, eskaera berrietara eta markatuetara bideratuko zaitu, eta bertatik ere eskaerak markatu ahal izango dituzu.

Europako Batzordeak finantzaturako Susperitze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU



3. Espedienteak aldatzeko eskaera baten bizi-zikloa hornitzailearen ikuspuntutik

Atal honetan, espedienteak aldatzeko eskaera baten bizi-zikloa hornitzailearen ikuspuntutik deskribatuko da.

3.1 Espedienteak aldatzeko eskaera bat sortzea

Atala urratsetan banatu dugu, ulertzea errazteko.

3.1.1 Eskaera berria

Espedienteak aldatzeko eskaera berri bat sortu edo irekitzeko, hasierako menuan «**Eskaera berria**» botoian klik egin behar duzu.

The screenshot shows a user profile on the left with details like 'Nire Datuak', 'Izenburua: Santiago Perez', 'NAN: SantiagoPerez', 'Profila: Erosketa-Langileak', and 'Azken sarbidea: 2025/12/19 14:35'. The main content area has a heading 'Espedienteak aldatzeko eskaera berri bat sortu nahi duzu?' and a button labeled 'Eskaera berria' which is highlighted with a red rectangle. Below this is a table titled 'Nire eskabideak' with columns: ID, Espedientea, Espediente_dk., Arrazola, Mota, Data, Egoera, and No. The table contains five rows of example data.

ID	Espedientea	Espediente_dk.	Arrazola	Mota	Data	Egoera	No.
SME-2025-00913			--	--	19-12-2025	BERRIA	S
SME-2025-00912	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoangalki ordetlatzea	Beste bat	19-12-2025	BERRIA	S
SME-2025-00291	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoangalki ordetlatzea	Taupada-mariagalua	16-12-2025	BERRIA	S
SME-2025-00190	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoangalki ordetlatzea	Taupada-mariagalua	04-11-2025	BERRIA	Santiago Perez
SME-2025-00188	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoangalki ordetlatzea	Taupada-mariagalua	03-11-2025	BERRIA	Santiago Perez

3.1.2 Formularioa

«**Eskaera berria**» botoian klik eginda, pantaila hau irekiko da.

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Eskera berria sortzeko, hiru atal dituen formularioa bete beharko duzu:

1. **Enpresaren datuak:** Lau testu-eremu ditu, nahitaez bete beharrekoak; horietatik hiruk aparteko egiaztapenak dituzte:
 - **IFK:** IFK bat (enpresaren IFZ) sartu dela egiaztatzen du.
 - **Harremanetarako posta elektronikoa:** Sartutako e-maila ondo osatuta dagoen ala ez egiaztatzen du.
 - **Telefono-zenbakia:** Sartutako telefonoa ondo osatuta dagoen ala ez egiaztatzen du.

Enpresaren datuak

Sozietatearen izena *

IFK *

Harremanetarako posta elektronikoa *

Telefonoa *

2. **Enpresaren kontakua:** Hiru testu-eremu ditu, nahitaez bete beharrekoak; horietatik batek du aparteko egiaztapena:
 - **NAN-Ahalordedun:** NAN-zk. bat sartu den ala ez egiaztatzen du.

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Enpresaren kontaktua

Harremanetarako pertsonaren izena *

Enpresako ahalordedunaren izena *

NAN-Ahalordedun *

3. Espedientearen datuak: Sei eremu ditu:

- **Espedientearen izena:** Nahitaez bete beharreko testu-eremua da.
- **Espediente zenbakia:** Nahitaez bete beharreko testu-eremua da.
- **Eskaera egiteko arrazoa:** Eremu honetan klik eginez gero, zerrenda bat irekiko da, izan daitezkeen arrazoietakoa bat hautatzeko. «Beste batzuk» hautatzen baduzu, «Arrazoiaren deskribapena» izeneko testu-eremua agertuko da, nahitaez bete beharrekoa, non arrazoa azaldu beharko baituzu.

Eskaera egiteko arrazoa *

Hautatu balio bat

Hautatu balio bat

Hobekuntza teknologikoengatik ordezkatzea

Aurkezpen-aldaketa

Neurriak zabaltzea

Produktua baztertzea

Erreferentzia-aldaketa

Beste batzuk

Eskaera egiteko arrazoa *

Beste batzuk

Arrazoiaren deskribapena *

512 karaktere gertzen dira

- **Produktu mota:** Eremu honetan klik eginez gero, zerrenda bat irekiko da, izan daitezkeen produktuetako bat hautatzeko. «**Beste bat**» hautatzen baduzu, «**Adierazi produktu mota**» izeneko testu-eremua agertuko da, nahitaez bete beharrekoa, non produktu mota idatzi beharko baituzu.

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Produktu mota *

Hautatu balio bat

Hautatu balio bat

Taupada-markagailua

Holters

Desfibriladoreak

Elektrodoak

Beste bat

Produktu mota *

Beste bat

Adierazi produktu mota *

512 karaktere gertzen dira

- **Ba al dago materialik kontsignan?:** Eremu hau markatuz gero, hauek agertuko dira:
 - Klik egiteko eremu bat, zerrenda bat irekitzen duena.
 - Nahitaez bete beharreko testu-eremu bat, data sartzeko.

Kontsignako materiala ordezkatzea

Kontsignako materiala ordezkatzea

Kontsignako materiala kentzea (ordezkatu gabe)

Ba al dago materialik kontsignan?

Kontsignako materiala ordezkatzea

Gure enpresak konpromisoa hartzen du Osakidetza zentro guztietatik kontsignako produktu guztiak kentzeko (halakorik badago) egun hau baino lehen



Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

- **Taula:** Eremu hau lerroak gehitu eta kentzeko aukera duen taula bat da, produktuei buruzko informazio zehatza sartzeko.

Gehitu errenkada Ezabatu

Lotea	Itema	Prezioa eurotan (BEZik gabe)
Errenkadarik gabe		

Lerroak gehitzeko, «**Gehitu errenkada**» botoian klik egin behar duzu; gero, eremuak klikatu eta bete ditzakezu.

Gehitu errenkada Ezabatu

Lotea
Errenkadarik gabe

Gehitu errenkada Ezabatu

Lotea	Itema	Prezioa eurotan (BEZik gabe)
1	test	10.000,00 €

Lerroak kentzeko, «**Ezabatu**» botoian klik egin behar duzu.

Agregar elemento Eliminar

Lote
No hay datos disponibles

3.1.3 Nabigazioa

Pantailaren behealdera joanez gero, ezkerrean «**Ezeztatu**» eta eskuinean «**Jarraitu**» botoiak ikusiko dituzu.

Be el dago materialik kontzignan?

Kontzignako materiala ordietzatze

Gure enprekuk konpromisoa hartzen du: Osakidetza zentro guztietatik kontzignako produktu guztiak kentzeko (italakerik badago) egun hau baino lehen

Gehitu errenkada Ezabatu

Lotea	Itema	Prezioa eurotan (BEZik gabe)
Errenkadarik gabe		

Ezeztatu

Jarraitu

Eskaera bat nahi gabe sortu baduzu edo gorde nahi baduzu, «**Ezeztatu**» botoian klik egin dezakezu; hurrengo leihoa irekiko da.

Europako Batzordeak finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Kasua itxi



Recuperando datos. Espere unos segundos e intente cortar o copiar de nuevo.

Kasua gorde dezakezu, lanean jarraitu edo ezabatu.

Gorde eta itxi

Lanean jarraitu

Ezetzatu

- Eskaera kendu nahi baduzu, «**Ezetzatu**» botoian klik egin behar duzu, eta hasierako menura itzuliko zara.
- Aitzitik, eskera gorde nahi baduzu, «**Gorde eta itxi**» botoian klik egin behar duzu. Eskaera gordetzeko, bertan agertzen diren eremuak bete behar dituzu. Botoian klik egin ondoren, hasierako menura itzuliko zara. Eskaerarekin jarraitu nahi izanez gero, Nire eskabideak atalaren bidez ireki ahal izango duzu. Atal honetan, sortu dituzun espedienteak aldatzeko eskaerak ikusi ahal izango dituzu, baita beren egoera begiratu ere.
- Eskaerarekin jarraitu nahi baduzu, «**Lanean jarraitu**» botoian klik egin behar duzu, leihoa ixteko.

Formularioa bete eta gero, «**Jarraitu**» botoia klikatu behar duzu, hurrengo pantailara joateko; bertan, eskaera sortzeko aukera izango duzu.

3.1.4 Erantsi dokumentazioa

«**Jarraitu**» botoian klik egin ondoren, ondoko pantailetakoa bat irekiko da, hautatutako **Produktu motaren** arabera:

- Huetako bat aukeratuz gero: taupada-markagailuak, holterak, desfibriladoreak edo elektrodoak, pantaila hau irekiko da:

The screenshot shows a web interface for submitting a request. The main heading is 'Erantsi dokumentazioa'. Below it, there's a progress bar and a warning message: 'Kategoria baliatzeaz arbuho mota hauak soilik igo ahal izango dira:'. There are three document upload sections: 'Fitxa teknikoak: .zip eta .pdf', 'Z. eranskina: .rtx, .rtz, .zip eta .csv', 'CE markaketa: .zip eta .pdf', 'Barra-kodeak: .jpg, .png, .gif, .zip eta .pdf', and 'Jarrailen-koosten adibidea: .zip eta .pdf', 'Markaturatzearen jakinarazpena: .zip eta .pdf'. There are also input fields for 'Produktuaren lagina' and 'Fitza teknikoak'.

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Pantaila honetan lau eremu daude:

- **Produktuaren lagina:** Lauki hau markatu behar duzu, baldintza teknikoaren agiriaren produktuaren lagin bat eskatu bada. Eskaera erosketa-saileko langileek balioztatzen badute, lagina helarazteko helbidea adieraziko da.
- **Fabrikatzailea (nahitaez bete beharrekoa):** Testu-eremua da.
- **Produktu berriaren ereduaren izena (nahitaez bete beharrekoa):** Testu-eremua da.
- **Erantsi dokumentazioa (nahitaez bete beharrekoa):** Botoi honetan klik eginez gero, leiho bat irekiko da, eskatzen zaizkizun agiriak igotzeko eta dagokion moduan markatzeko, goiko koadroan azaldutakoaren arabera.

Erantsi dokumentazioa



Kategoria bakoitzeko artxibo mota hauek soilik igorri ahal izango dira:

- Fitxa teknikoa:** zip eta pdf
- 2. eranskina:** xlsx, xls, zip eta csv
- CE markaketa:** zip eta pdf
- Barra-kodeak:** jpg, jpeg, png, svg, zip eta pdf
- Jarraipen-txostenen edibidea:** zip eta pdf
- Merkaturatzearen jakinarazpena:** zip eta pdf

Produktuaren lagina

(*) Onarri teknikoaren pleguan esiatu bada bakarrik markatu. Etsaera berriusi ondoren, posta elektronikoz bidaliko dizugu lagina bidaltzeko helbidea.*

Fabrikatzailea *

Ejemplo de fabricante

Produktu berriaren ereduaren izena *

t

Erantsi dokumentuak

Dokumentu guztiak deskargatu

Erantsi dokumentuak

Arrastatu eta askatu dokumentuak

edo

Hautatu fitxategiak

Erantsi dokumentuak

Arrastatu eta askatu dokumentuak

edo

Hautatu fitxategiak

Izena	Fitxategia	Kategoria
OS00_20251215T145932.4E	OS00_20251215T145932.492 GMT_PV-OSAKI-SANI-CERTSER-WORK CSP-2025-00033.pdf	[Hautatu]
OS10_20251217T102932.0I	OS10_20251217T102932.028+GMT.pdf.pdf	2. Eranskina Jakinarazpen Komertziala
OS00_20251215T173115.1I	OS00_20251215T173115.101+GMT.pdf.pdf	Fitxa teknikoa CE marka
OS00_20251215T145932.4E	OS00_20251215T145932.492 GMT_PV-OSAKI-SANI-CERTSER-WORK CSP-2025-00033 (1).pdf	[Hautatu]
OS57_20251215T134920.6E	OS57_20251215T134920.655 GMT_PV-OSAKI-SANI-CERTSER-WORK CSP-2025-00033.pdf	[Hautatu]

Ezeztatu

Erantsi

Ezeztatu

Erantsi

Europako Batzordeak finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

2. eranskinean dagoen txantiloia deskargatu ahal izango duzu, beheko irudian markatuta dagoen «Txantiloia deskargatu» testuan klik eginez.

Produktuaren lagina

(*) Oinarri teknikoen pleguan eskatu bada bakarrik markatu. Eskaera berrikusi ondoren, posta elektronikoz bidaliko dizugu lagina bidaltzeko helbidea.*

Fabrikatzailea *

Produktu berriaren ereduaren izena *

Fitxa teknikoa

Produktuaren ezaugarri teknikoak jasotzen dituen dokumentua.

2. Eranskina

Eragindako produktuen zerrenda.

[Txantiloia deskargatu](#)

- «Beste bat» hautatu baduzu, pantaila hau irekiko da:

Erantsi dokumentazioa

Inprimakia Erantsi dokumentazioa

Kategoria bakoitzeko artxibo mota hauek soilik igo ahal izango dira:

Fitxa teknikoa: .zip eta .pdf
2. eranskina: .xlsx, .xls, .zip eta .csv

CE markaketa: .zip eta .pdf
Berra-kodeak: .jpg, .jpeg, .png, .svg, .zip eta .pdf

Jarrailpen-txostenen adibidea: .zip eta .pdf
Merkatutzaeren jakinarazpena: .zip eta .pdf

Produktuaren lagina

(*) Oinarri teknikoen pleguan eskatu bada bakarrik markatu. Eskaera berrikusi ondoren, posta elektronikoz bidaliko dizugu lagina bidaltzeko helbidea.*

Fitxa teknikoa

Produktuaren ezaugarri teknikoak jasotzen dituen dokumentua.

2. Eranskina

Eragindako produktuen zerrenda.

Txantiloia deskargatu

Erantsi dokumentuak...
Dokumentu gutxiak deskargatu...

CE marka

Ziurtagiriak ematen dituen enpresa batek emandako ziurtagiria, produktuak dagokion araudia betetzen duela bermatzen duena.

Osasun-produktuak merkatutzaerako eta/edo zerbitzuan jartzeko jakinarazpena

Karutula eta eranskinak, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak emandakoa.

Ezetzatu Atertu Sortu

Pantaila honetan bi eremu daude:

- **Erantsi dokumentazioa:** Erantsi dokumentazioa botoiak bezala funtzionatzen du, baina kategoria gutxiago ditu.
- **Produktuaren lagina:** Lauki hau markatu behar duzu, baldintza teknikoen agirian produktuaren lagin bat eskatu bada. Eskaera erosketa-saileko langileek balioztatzen badute, lagina helarazteko helbidea adieraziko da.

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Pantailaren behealdera joanez gero, pantaila bietan, «**Ezeztatu**», «**Atzera**» eta «**Sortu**» botoiak ikusiko dituzu ezkerrean eta eskuinean.

- «**Ezeztatu**» botoian klik eginez gero leihobata erakutsiko dizu. Bertan, eskaera bertan behera utzi nahi baduzu, «**Ezeztatu**» botoian klik egin behar duzu, eta hori egitean, hasierako menura bidaliko zaitu.
- «**Atzera**» botoian klik eginez gero, aurreko pantaila irekiko da berriro.
- «**Sortu**» botoiak, aldiz, eskaera sortuko du, baina soilik nahitaezko eremu guztiak bete badira. Eskaera sortuta, mezu bat bidaliko da enpresaren helbide elektronikora, eskaera sortu dela baieztatuzko.

«**Sortu**» klikatu ondoren, hurrengo pantaila irekiko da, sortutako eskaera ikusteko (erantsitako dokumentuak ikusteko, ezkerreko menua erabili behar duzu).

Eskaera berria

Kudeaketa

Enpresaren datuak

Enpresaren kontaktua

Enpresaren datuak

Enpresaren kontaktua

Enpresaren datuak

Enpresaren kontaktua

Identifikatzailea	Itema	Prezioa eurotan (BEZa gabe)
1	#	10.000,00€

3.2 Erosketa-saileko langileen lehenengo ebaluazioa

Eskaera sortuta, mezu elektronikoa bat bidaliko zaie erosketa-saileko langileei, eskaera sortu dela jakinarazteko. Erosketa-saileko langileei bidaliko zaie eskaera, lehenengo ebaluazioa egin dezaten.

Hasierako menura itzuliz gero, hornitzaileak dagokion egoerarekin ikusiko du eskaera, kasu honetan, «**Erosketen ebaluazioa egiteke**» agertuko da.

ID	Hornitzailea eskatzea	Espedientea	Espediente zk.	Eskaeraren arrazola	Mota	Eskaera-data	Nork sortua	Egoera	Eskintzak
MOD-2025-00229	SME-2025-00190	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordezkatzea	Marcapasos	19-12-2025		EROSKETEN EBALUAZIOA EGITEKE	

Erosketa-sailak eskaera baimentzen badu, eskaera ebaluatzeko prozesuak aurrera jarraituko du eta «**Batzorde teknikoak ebaluatzeke**» marka jarriko zaio eskaerari, «**Produktuaren lagina**» laukia markatu **EZ** bada.

Nire eskabideak

KASU IREKIAK EBATZITAKO KASUAK

ID	Espedientea	Espediente zk.	Arazola	Mota	Data	Egoera	Nork sortua
SME-2025-00318	Nombre ejemplo	Número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordezkatzea	Taupada-markagalua	19-12-2025	BATZORDE TEKNIKOAK EBALUATZEKE	

Eskaera baztertu badute, «**Ez da izapidetu behar**» egoera agertuko zaio.

Nire eskabideak

KASU IREKIAK EBATZITAKO KASUAK

ID	Espedientea	Espediente zk.	Arazola	Mota	Data	Egoera	Nork sortua
SME-2025-00309	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordezkatzea	Taupada-markagalua	19-12-2025	AMATUA	
SME-2025-00291	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordezkatzea	Taupada-markagalua	16-12-2025	EZ DA IZAPIDETU BEHAR	Santiago Peres

Laukia markatuta badago, «**Laginak erregistratzeke**» marka jarriko zaio eskaerari.

ID	Hornitzailea eskatzea	Espedientea	Espediente zk.	Eskaeraren arrazola	Mota	Eskaera-data	Nork sortua	Egoera
MOD-2025-00229	SME-2025-00190	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordezkatzea	Marcapasos	19-12-2025		LAGINAK ERREGISTRATZEKE

3.3 Batzorde teknikoaren ebaluazioa

Erosketa-saileko langileek eskaera onartu ondoren, mezu bat bidaliko zaio batzorde teknikoari, balorazioa egin dezan. Eskaeraren egoera aldatu egingo da eta «**Batzorde teknikoak ebaluatzeke**» agertuko da.

Nire eskabideak

KASU IREKIAK EBATZITAKO KASUAK

ID	Espedientea	Espediente zk.	Arazola	Mota	Data	Egoera	Nork sortua
SME-2025-00318	Nombre ejemplo	Número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordezkatzea	Taupada-markagalua	19-12-2025	BATZORDE TEKNIKOAK EBALUATZEKE	

Batzorde teknikoak eskaera baztertzeko badu, «**Baztertuta batzorde teknikoan**» marka jarriko zaio eskaerari, eta mezu bat bidaliko da enpresaren helbide elektronikora eskaera baztertu dela jakinarazteko, batzorde teknikoaren oharrak jartzeko testu-eremuan arrazoi zehatza azalduta.

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU


Nire eskabideak

ID	Espedientea	Espedientia zk.	Arrazoa	Mota	Data	Egoera	Marka sortua
SME-2025-00318	Nombre ejemplo	Numero 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordetsatzea	Taupada-markagailua	19-12-2025	BAZTERTUTA BATZORDE TEKNIKOA	

3.4 Informatika-saileko langileen ebaluazioa

Informatika-saileko langileen ebaluazioa ez da egingo, eskaera sortzean **Produktu mota** eremuan produktu hauetako bat hautatu ez bada: taupada-markagailuak, holterrak, desfibriladoreak edo elektrodoak.

Batzorde teknikoak eskaera baimendu eta gero, mezu bat bidaliko zaie informatika-saileko langileei, eskaeraren berri emateko eta ebaluatu behar dutela esateko (eskaerarekin batera doazen dokumentuak ere erantsiko dira). Eskaeraren egoera aldatu egingo da eta «**Informatika-hornitzaileak ebaluatzeke**» agertuko da.



3.5 Txostena idazteke

Informatika-saileko langileek eskaera behin baimenduta, eskaeraren egoera aldatu egingo da eta «**Txostena idazteke**» jarriko da. Hemen, txostena sortzeko txantiloia mota hautatuko da.



3.6 Txostena sinatzeke

Txostena sortzeko txantiloia behin hautatuta, eskaeraren egoera ere aldatu egingo da eta «**Txostena sinatzeke**» agertuko da. Hemen, sinatutako txosten hori erantsi beharko du erabiltzaileak.



Txostena behin erantsita eskaera onartu bada, «**Amaitua**» egoera agertuko zaio. Hornitzaileak «**Ebatzitako kasuak**» fitxan ikusiko du.

Nire eskabideak

ID	Espedientea	Espedientia zk.	Arrazoa	Mota	Data	Egoera	Marka sortua
SME-2025-00318	Nombre ejemplo	Numero 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordetsatzea	Taupada-markagailua	19-12-2025	BAZTERTUTA BATZORDE TEKNIKOA	
SME-2025-00320	Nombre Ejemplo	El número 1	Hobekuntza teknologikoagatik ordetsatzea	Taupada-markagailua	18-12-2025	AMAITUA	

Europako Batzordeak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – NextGenerationEU

Mezu bat bidaliko da enpresaren helbide elektronikora, eskaera izapidetzea amaitu dela jakinarazteko.